

“Hamaika kontu baloratu ditugu igoerari uko egiteko erabakia hartzeko”

Francis Muños Hervás
Sasikoako presidentea • 26



Taupada! Ielopezan, Durangoko Azoka "egokitua" izango da 2020an

Durango • Durangoko Azoka abenduaren 5etik 8ra egingo da aurten; koronabirusaren eraginez, hainbat neurri iragarri dituzte. Bisitari kopurua kontrolatuko dute eta salmahai gutxiago egongo da, besteak beste • 25



Taulara igotzeko itxaropenez

'Limonos en invierno' hirugarren diskoa agertokietan aurkezteko bira hastear zuela harrapatu zuen pandemiak Izaro musikaria. Euskal Herriko agertoki nagusietariko batzuetan aritzekoa zen. Konfinamendu sasoia "deskonektatzeko" baliatu eta gero, urrian agertokietara itzultzeko esperantza du mallabitarrek. • 24

Zaldibar Argituk manifestaziora deitu du zapatu arratsalderako

Durangaldea • Uztailaren 6an bost hilabete beteko dira Zaldibarko zabortegia amildu zenetik eta langile bi desagertu zirenetik. Zapatuan manifestazioa egingo dute Eibarren, 17:00etan, Untzaga plazatik irrenda. • 6

**Zaldibarko Udalak
sekula ezagutu bako jai hauetan be,
ondo pasa eta arduraz jokatu!**



Zaldibar
Elizateko
Udala

"Arreta pertsonala da gurea; lehenengo eskutik ezagutzen ditugu laguntzen diegun herritarren beharrianak"

Zornotzako Elkartasun Sareko kideek herriko 150 bat pertsonari laguntzen diete elikagaiak eta higiene produktuak astean behin banatuta



Elkartasun sareko kideetarik batzuk.

ematea, pobrezia egoeran daudenentzat informazio gune bat ipintzea edo herriko saltokietan elikadura-bonuak ipintzea eskatu zuten. Elkartasun Sareko kideek azaldu dutenez, sarea martxan ipini zutenean hasi ziren udala-

"Pozik gaude boluntario lanagaz, baina instituzio publikoen inplikazioa beharrezkoa da"

gaz hartu-emanen. "Elkarlan bat sortu guran hasi ginen, baina udalak esan zigun, boluntario modura lan egin gura bagenuen, Gurutze Gorrira jo behar genuela haiekin lanean hasteko. Baina gurea askoz arreta pertsonalagoa da. Laguntzen diegun herritarren beharrianak lehenengo eskutik ezagutzen ditugu, badakizkigu euren izenak, eta herritar bakoitzaren izenaren atzean, azken finean, hartu-eman bat dago. Gurutze Gorriak egiten duen lana oso inportantea da, baina gurea gertukoagoa da. Batak ez du bestea kentzen", argudiatu du Lauzirikak.

Zornotzako Elkartasun Sareak hor kokatzen ditu udalari egindako inplikazio eskariak. "Gu pozik gaude gure boluntario lanagaz, baina iruditzen zaigu zerbitzu publiko batek instituzio publikoek lagunduta egon behar duela. Udala gehiago inplikatu behar delakoan gaude", adierazi du Lauzirikak. Egoera geroago eta larriagoa den arren, Zornotzako Elkartasun Sareak bere konpromisoa berretsi du. Aurrera begira jarraituko dutela azaldu du Lauzirikak.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

"Ikusi dugu egoera ez dela leundu. Jendea laguntza eske etortzen da. ERTEan daudenak eta egoerari eusteko zailtasunak dituzten herritarrek etortzen hasi zaizkigu. Baita ERTEa kenduta ezer barik geratu direnak ere. Konfinamenduan baino jende gehiagori eskaintzen diogu arreta". Nerea Lauzirika Marquinez (Gasteiz, 2000) Zornotzako Elkartasun Sareko kidea da. Beste hainbat gazte gaz batera, oinarritzko beharrianak asetzen laguntzen die Zornotzako hainbat herritarri.

Astero-astero elikagaiekin eta higiene produktuekin osatutako kaxak banatzen dizkiete beharrianak duten herritarrei. 150 bat herritar babesten dituzte gutxi gorabehera. "Familia dira gehienak, baina badago bakarrik bizi den herritarren bat edo beste ere. Familien erdiak, gutxi gorabehera, migratzaileak dira. Beste erdiak, ez-migratzaileak. Guraso

bakarreko familia dira kasu askotan, hau da, ama batek eta seme-alabek osatutakoak", azaldu du Lauzirikak.

Elikagaien ekarpena hainbat bidetatik jasotzen dute. Herritar indibidualen ekarpenaz gainera, Zornotzako komertzioen eta elkarten dohaintzak jasotzen dituzte. "Xiberu tabernak, esaterako, esnea ematen digu astero. Usubiaga okindegiak ogiz hornitzen gaitu. Herriko arraindegia eta harategiak ere primeran erantzuten dabilta", adierazi dute. Edozelan ere, Elkartasun Sareko kideek onartu dute egoera "geroago eta txarragoa" dela. Hasieran elkartasun uholdea izan zuten, baina, diotenez, hori apaldu egin da "jendeari ezin zaiolako egunero dirua edo hornidura eskatu". "Bakoitzak bere arazoak ditu", dio Lauzirikak. Horregaitik, hainbat modu bilatzen dabilta egoerari eusteko eta herritar gehiagoren-gana heltzeko.

"Laguntzen diegun familien erdiak migratzaileak dira; beste erdiak, ez-migratzaileak"

Deia udalari

Egoera geroago eta larriagoa dela-eta, Elkartasun Sareak inplikazio handiagoa eskatu dio Zornotzako Udalari. Ekaineko osoko bilkurara jo zuten eskariak egitera. Besteak beste, baliabide gehiago

Elikagai faltari etxebizitzaren alokairua ordaintzeko zailtasunak gehitu zaizkio orain

Zornotzako "bizpahiru" familia etxebizitzaren alokairua ordaindu ezinda dabiltzala jakin du Elkartasun Sareak

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Elikagaien eta higiene produktuen gabeziari aurre egiten dioten arren, bestelako arazo batzuk ere azaleratzen hasi direla ikusi dute Zornotzako Elkartasun Sareko kideek. Elikagaien arazoari

etxebizitzaren alokairua ordaintzeko zailtasunak batu zaizkio orain. "Jatekorik ez duen pertsonak ez du alokairua ordaintzeko modurik. Eta gertatu zaigu herritarren batek gugana jotzea eta alokairua ezin ordainduta

dabilela ikustea. "Etxeko jabeak deitu eta etxetik alde egin behar dudala esan dit, eta ez dakit nora jo", esan digute. Etxebizitzaren arazoa ezin dugu konpondu, baina ahalegintzen gara ahal dugun neurrian aholkularitza lana egiten, abokatuekin hartu-emanen ipintzen", azaldu du Nerea Lauzirika Elkartasun Sareko kideak.

Familia eta umeak

Familia dira egoera horretan dauden kideak, ume txikiak dituztenak. "Elikagaien arazoa ez dator bakarrik", dio Lauzirikak.

Tadu enpresaren inguruan egiten dabiltzan aparkalekua urte amaierarako erabilgarri izatea gura du Durangoko Udalak

120 bat autorentzako aparkalekua izango da. Durangarrek aurrekontu parte-hartzaileetan bozkatutako ideietariko bat da

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Lanak martxan daude, eta dena bide onetik badoa, urtea amaitzen denerako egongo da erabilgarri. Tadu enpresa zegoen lursailean aldiriko aparkaleku bat egiten hasi da Durangoko Udala. Faustebide, Untzillatx eta Olleria kaleen artean egongo da aparkalekua, Durangoko sarreran. Modu horretan, herriko aparkaleku eskaintza handituko du udalak, eta, bide batez, erantzuna emango dio Durangoko herritarrek sostengatutako ideia bati. Izan ere, iaz egindako aurrekontu parte-hartzaileetan aparkaleku hau babestu zuten herritarrek. Gehien babestutako proposamenen artean laugarrena izan zen aparkalekuarena.

Aparkalekuak 120 plaza izango ditu eta gunek berde bat mantenduko da trenbide zaharren ondoan. Obra horiek 320.000 euroko aurrekontua izango dute.

LESAko aparkalekua

Tadukoa ez da udala herriko mugikortasuna hobetzeko egiten dabilen

lan bakarra. Landako Guneko lurpeko aparkalekuan hainbat lan egingo dituzte. Besteak beste, aparkaleku osoaren automatizazioa berrituko dute; sarbide,

Landako Erakustazokako aparkalekua osorik automatizatzen hasi gura dute laster

ordainketa eta gida sistemarako makina berriak ipiniko dituzte. Eraikin osoa telegestionatuko dute, intrusio eta zaintza-sistema berriak ipinita. Horrez gainera, auto elektrikoentzat partzela berriak ipiniko dituzte, udalak azaldu duenez.

Emisio txikiko eremuak

Udal gobernu taldea ordenantza bat lantzen dabil isuri gutxiko gunek berriak arautzeko, eta ordenantza horren barruan kokatu gura ditu Alde Zaharreko sarbideak arautzeko proposamenak.



Olleria, Untzillatx eta Faustebide kaleen artean egongo da aparkalekua, Durangoko sarreran.

Ibilgailu kutsatzaileekin TAO eremuen barruan egiten diren joan-etorriak identifikatu gura dituzte

2006an sortu zen egun indarrean dagoen araudia, eta ordutik hona Alde Zaharreko beharrianak aldatu egin direla iritzi dio udalak. Ekainean zehar, parte-hartze prozesu bat garatu du herritarrekin. Bestalde, TAO zerbitzua berritzeko lanei ere ekin die uda-

lak. Ibilgailu kutsatzaileekin TAO eremuen barruan egiten diren joan-etorriak beharrezkoak diren aztertu gura du. Eta errotazio handiagoko eskaria duten zerbitzugune edo merkataritza-gunetarako aparkatzeko zailtasunik ote dagoen ere jakin gura du.

Mireia Delgado aktibista feminista durangarrak 'Trans Sexualitateak' liburua aurkeztu du

Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emagin elkarteak argitaratu dute. Delgado lanaren koordinatzailea izan da. Liburua asteen ipini dute salgai Durangoko liburu-dendetan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Mireia Delgado pedagogo eta ekintzaile feminista durangarrak *Trans Sexualitateak* liburua aurkeztu du asteen, San Agustin kulturgunean. Euskal Herriko Bilgune Feministaren eta Emagin elkartearen eskutik ondutako argitalpena da. Delgadok testuak koordinatu eta osatu ditu. Liburuak hausnarketa eragin gura dio irakurleari, eta gizarteak ohi-kotzat, arautzat, hartzen dituen

identitate, genero eta sexualitate rola auzitan ipintzeko tresna lagungarria izan gura du. Heteropatriarkatua desobeditzera deitu du Delgadok. Besteak beste, azaldu du norbanako bakoitzak "arauak bete-

Liburuak arautzat hartu ohi diren identitateak eta rola auzitan ipintzera gonbidatu gura du

tzen ez dituen aldiro", izan kalean, etxean, edo lanean, "araua arrakalatu" egiten dela apurka-apurka.

Liburua orain urte bi argitaratu zuten, baina martxoan egin behar zuten aurkezpenean, herririk herri. Koronabirusak dena hankaz gora ipini duela-eta, asteen egin dute Durangoko aurkezpenean. Aurrerantzean, liburua Durangoko liburu-dendetan salgai egongo dela aurreratu zuen Delgadok.



Mireia Delgadok Lo Eizagirre ekintzaile transexualagaz batera egin zuen aurkezpenean.



GOBERNATZEKO PREST



MIREN GORROTXATEGI

Lehendakari hautagaia

<http://mirengorrotxategi.eus>



Elorrioko udalak zerbitzu berri bat ipini du martxan herriko emakumeei laguntza emozionala emateko asmoz

Zerbitzua erabili gura duenak hiru aukera ditu: telefonoz deitu, whatsapp mezu bat idatzi edo mezu elektroniko bat bidali



Zerbitzuaren helburua bizia erdigunean ipini eta emakumeei laguntzea izango da.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak zerbitzu berri bat ipini du martxan asteen, bizia erdigunean ipini eta emakumeei laguntza emozionala emateko asmoz. "Pandemia sasoian, emakume

askoren egoerak okerrera egin du, batez ere etxealdian; besteak beste, tratatu txarrak jasaten dituztenen egoerak, langabezian edo erregulazioan daudenak, etxean telelanean dabilzanenak eta osasun ar-

Zerbitzu honegaz COVID-19ak emakumeengan izan duen eragina neurtu ahal izango du udalak

loan lan egiten dutenenak. Egoera oraindino okerragoa izan baino lehen, udalak laguntza emozionala eskaini gura die", azaldu du Berdintasun arloko Alazne Mendizabal zinegotziak.

Hori horrela, Elorrioko emakumeei laguntza emozionala eta gaur egun dauden baliabideen berri ematea izango da zerbitzuaren helburua. Udaletik jakinarazi dutenez, zerbitzua ez da esku-hartzeko edo terapia egiteko, entzuteko eta akonpainamendurako baino.

Horrez gainera, emakumeei laguntza emateko zerbitzu honegaz, COVID-19ak emakumeengan izan duen eragina neurtu ahal izango dutela jakinarazi dute udaletik.

Zerbitzua euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, portugesez eta frantsesez eskainiko dute

Zerbitzua erabili gura duenak 667 906 437 telefono zenbakira deitu edo covid19elorrio@gmail.com helbidera idatzi dezake. Posta elektronikora idazten duenak 24 ordu baino lehenago jasoko du erantzuna.

Zerbitzua euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, portugesez eta frantsesez eskainiko dute, eta ordutegi jakin bat izango du: astelehen, eguen eta barikuetan goizez, 11:30etik 13:30era; eta martitzen eta eguaztenetan arratsalde, 16:00etatik 18:00etara.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Alarma egoerak herrian eragin-dako galerei lehenbailehen aurre egiteko asmoz, Atxondoko Udalak herriko autonomiei eta enpresa txiki eta ertainei laguntzea erabaki du. Herriko saltoki, ostalari eta enpresariekin bildu eta gero, udal arduradunek bakoitzari 600 euro arteko diru-laguntza ematea erabaki dute Atxondoko ekonomia suspertzeko.

Xabier Azkarate alkateak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, interesa dutenek udaletxean informazioa eskatu eta bertan egin dezakete eskaria.

Bonu kanpaina

Bestalde, ekainaren 8an hasi eta urte amaieran amaituko den bonu

Atxondoko Udalak diruz lagunduko die autonomiei eta enpresa txiki eta ertainei

Bestalde, bonu kanpainak "erantzun positiboa" izan duela dio Xabier Azkarate alkateak

kanpainak "oso erantzun positiboa" izan duela azaldu du alkateak. "Erantzuna oso positiboa da. Oraindino bonu batzuk falta zaizkigu banatzeko, baina laster denak bananduta izatea espero dugu. Bizilagunei eta establezimenduei laguntzen jarraituko dugu", esan du Azkaratek.

Herriko komertzioa biziaraztea eta atxondarrei herrian gastatzeko deskontu-txartelak banatzeko dira kanpainaren helburuak.



600 euro arteko diru-laguntzak emango ditu udalak.

Berrizen boluntario bila dabilta haur eta gazteekin mintzapraktika egiteko

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken hileotan, herriko hainbat umek ez dute aukera handirik izan euskaraz berba egiteko, eta eskolan ikasitakoa galdu dute. Beraz, arazo horri irtenbide bat emateko, boluntario bila dabilta Berrizen. Udaletik jakinarazi dutenez, hamabost minutuko saioak izango dira eta telefonoz egingo dituzte. Interesatuak 94 622 53 69 telefono zenbakira deitu eta izena eman behar dute.

anboto ➔

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko uztailaren 3a
18. urtea - 814. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Maspetik Bidebarrietarako sarbidea hobetzeko egindako proposamena babestu dute iurretarek

Guztira, 130 iurretarek parte hartu dute 2020ko aurrekontu parte-hartzaileetan, botoa emanda. Herritarrek eurek egindako 10 proposamenen artean, Maspe eta Bidebarrieta kaleetan eragiten duen proiektuak lortu zuen botorik gehien

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Maspe kaletik Bidebarrietarako sarbidea hobetzea gura dute iurretarek. Halaxe erakutsi dute 2020ko aurrekontu parte-hartzaileetan. Iurretarek eurek egindako hamar proposamenen artean, horixe izan da botorik gehien batu duena: 88. Iurretako Udalak 20.100 euro erabiliko ditu lan horiek gauzateko. Horregaz batera, Iurretako Udalak espaloia eta hondakinak biltzeko

Hirigunean komun publikoak ipintzeko proposamena (50.000 euro) izan da bigarren bozkatuena, eta hori kontuan hartuko dutela azaldu dute udal arduradunek, "etorkizunean udalak egingo di-

tuen inbertsioen barruan lehentasuna emanez". Kultur etxearen ondoan jolasgunea egokitzea, Beresi inguruan Kalistenia-parkea egitea eta Zaldai bidean oinezkoentzako eremua seinaleztatzeko eta argiteria

hobetzea ere proposatu dute, besteak beste, iurretarek. Herritarrek ekainaren 1etik 14ra bitartean bozkatu zuten. Internet bitartez, sare sozialen bitartez eta aurrez aurre bozkatzeko aukera izan dute.



Maspe kaletik Bidebarrietara gasolindegitik sartzeko bidea hobetzea eskatu dute herritarrek.

Etorkizunari begira, hirigunean komun publikoak ipintzea kontuan hartuko du udalak

gunea berrituko ditu (27.200 euro) Zubiaurre 2 kalean, eta adinekoentzako gimnasia eremua handituko du (5.000 euro) Euskaldun Berria parkean. Aurten, 130 iurretarek parte hartu dute aurrekontu parte-hartzaileetan, botoa emanda.



Amilburu kaleko lurpeko pasabidea itxita egongo da gauetan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Amilburuko lurpeko pasabidea egunez baino ez da egongo zabalik, ikastetxeetako ikasleek, behar izanez gero, erabiltzeko aukera izan dezaten. Era berean, kendu egingo dituzte pasabide horretako igogailu biak. Irisgarritasuna "bermatuta" dagoela iritzita hartu du erabakia Iurretako Udalak. Segurtasuna bermatzeko aukerarik ez dagoelako itxiko dute gauetan Amilburuko lurpeko pasabidea. Udal arduradunek arrazoitu dutenez, "kontuan hartuta gauetan udaltzaingo zerbitzurik ez dagoela, pasabide hori puntu beltza izan daiteke, une honetan oso gutxi erabiltzen delako".

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDI/ARRIETA S.COOP

2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Matrikulazioa

Uztailaren 13tik 17ra

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
•Administrazioa eta Finantzak •Zuzendaritza Idazkaritza •Salmenta Kudeaketa	•Automatizazioa eta Robotika Industrial •Sareko Informatika Sistemen Administrazioa •Fabrikazio Mekanikoko Diseinua •Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa •Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

Uztailean zehar zabaldu gura dituzte Abadiñoko igerilekuak; Atxondokoak, ostera, datozen egunetan zabaltzea aurreikusten dute

Otxandioko igerilekuak eta Zornotzako Ganeko igerilekuak uztailaren 1ean zabaldu zituzten

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko Astolako igerilekuak itxita daude otsailaren erdialdetik. Haizeteen eraginez, sabai zati bat jausi zen eta itxita egon dira harrezkero. Asteon emandako prentsaurrekoan, Mikel Garaizabal alkateak eta Javier Crespo alkateordeak jakinarazi dute igerilekuak uztailean zehar zabaltzea gura dutela. Igerilekuak udako igerileku moduan zabalduko dituzte, estalkirik barik. Estalkia kenduta dago dagoeneko, eta baita aldameneko atea ere.

Baina estalkiarena ez da arazo bakarra izan. Igerileku handiko ontzian ere badaude arazoak. "Igerilekuko ontzia hondatu egin da eta orain hori konpontzea da lehentasuna", adierazi du Crespok. Arazo hauek konpondu eta gero zabalduko dituzte igerilekuak, udako igerileku moduan. "Igerilekuak uztailean zehar zabaltzea da gure helburua", esan du Garaizabalek.

Bestalde, behin udako denboraldia amaituta, berriro estalkia ipini dute Astolan. "Lanean jarraitzen

dugu, hurrengo hileetan, ahalik eta lasterren, estalki berria izateko", esan du Crespok.

Kiroldegia laster zabalik

Bestalde, kiroldegiko gimnasioa datozen egunetan zabalduko dutela jakinarazi du Garaizabal alkateak. Esan duenez, gimnasioa garbitzen eta desinfektatzen dabilza orain. Horrez gainera, gimnasioko makineria udazkenerako berriztuta izatea aurreikusten dutela esan du alkateak.

Atxondoko igerilekuak

Bestalde, Atxondoko igerilekuak asteon zabaltzea zen udalaren asmoa. Eta azkenean datozen egunetan zabalduko dituztela esan dio alkateak ANBOTOri. 200 lagun sartu ahal izango dira gehienez, txandaka: goizean batzuk eta arratsaldean beste batzuk, "ahalik eta jenderik gehienak" gozatzeko. Osasun neurri bereziak hartuko dituztela ere iragarri dute. Besteak beste, hitzordua aurretik hartu beharko da eta



Abadiñoko igerilekuak itxita daude otsailetik.

Otxandioko eta Zornotzako igerilekuetan aplikazio bana martxan ipini dute aforoa zein den jakiteko

segurtasun tartea zaindu beharko dira. Txartela %50 merkeago izango da atxondarrentzat.

Otxandio eta Zornotza

Otxandioko igerilekuak eta Zornotzako Ganekoak uztailaren 1etik daude zabalik. Zornotzakoek, aur-

ten, ur-jolas parke berria dute.

Otxandioko eta Zornotzako igerilekuetan aplikazio bana martxan ipini dute bertako aforoa zein den jakiteko. Aplikazioa erabilia, igerilekura joan gura dutenek une oro jakingo dute zenbat lagun dagoen igerilekuetan.

Zaldibar Argituk manifestaziora deitu du zapatu arratsalderako Eibarren

Uztailaren 6an bost hilabete beteko dira Zaldibarko zabortegia amildu zenetik eta langile bi desagertu zirenetik

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Uztailaren 6an bost hilabete beteko dira Zaldibarko zabortegian lur-jausia gertatu zenetik, Verter Recycling zabortegia amildu zenetik eta Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran langileak desagertu zirenetik. "Zaldibarko zabortegiaren kudeaketa negargarriaren ondoren, kargu politiko bakar batek ere ez du dimititu. Familiei eta herritarrei errespetuz erantzukizun politikoak mahai gainean ipini behar

zaizkiela aldarrikatzen dugu", azaldu zuen Zaldibar Argituk.

Bestalde, Ingurumen Sailak zabortegiko biltegia handitzeko baimena eman dio Verter Recy-

Ingurumen Sailak zabortegiko biltegia handitzeko baimena eman dio Verter Recyclingi

cling enpresari. Betetzear dagoen biltegiaren ondoan zelda bat eraikiko dute, Motia mendiaren magalean dauden bi ibarbide txikiren gainean.

"Zabortegiko biltegia ez zela behin-behinekoa izango salatu genuen auzokideok eta esandakoa betetzen ari da", azaldu dute Eltzaga auzoko bizilagunek. Zaldibarko osoko bilkuran mozioa aurkeztu zuten osasun azterketak eskatuz, besteak beste. Mozioa ez zen aurrera atera EAJren eta PSE-EEren kontrako botoekin eta EH Bilduren aldekoekin.



Zaldibart Argituren manifestazioa 17:00etan abiatuko da Eibarko Untzaga plazatik.

Estetika gida
anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

Martxan dira Zaldibarko kultur jaiak Sua, Luhartz eta Puro Relajo taldeen kontzertuekin

Zaldibarko kultur jaiek uztailaren 5era arte iraungo dute; Maiztegi alkateak "erantzukizunez" ospatzeko deia egin du



lazko jaietako argazki bat.

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Zaldibartarrek eguenean hasi zituzten aurtengo kultur jai bereziak. Koronabirusaren agerpenak baldintzatu arren, musika, antzerkia eta kirol ikuskizunak progra-

matu dituzte Zaldibarren jaiak ospatu behar zituzten egunetarako. Kultur jai hauek domekara arte iraungo dute. "Aurtengo festetan, jaietz gozatzea da lehentasuna, baina erantzukizunez, adierazitako

neurri guztiak hartuta eta errespetatuta. Eta gutariko bakoitzak jakin behar du beharrezko arauak bete behar ditugula", adierazi du Jose Luis Maiztegi alkateak. Ekitaldiak Olazarren ipinitako karpan

egingo dira, pilota partidua izan ezik. Ekitaldietan 300 lagun egon ahal izango dira gehienez, eta sarrerak doakoak izango dira, baina aurretik hartu beharko dira. Jai Batzordearen batzarretan, Castet

elkartek, Txosnaguneak, Zaldibarko Jendeak elkartek, Zaldibarko Kirol Elkartek eta udalak parte hartu dute.

Gaur, barikua, Sua eta Luhartz taldeen kontzertuak egongo dira.

Segurtasuna lehenetsiz

Ekimen guztiak normaltasun berriara egokituta daude. Zaturako, egun osoko egitaraua prestatu dute. Goizean, olinpiada "estatikoak" egingo dituzte. Ostean, Puro Relajo kontzertu mariatxia eskainiko

Zaturako, egun osoko egitaraua prestatu dute; olinpiada "estatikoak" eta musika egongo dira

du; mariatxi hauek ohiko bisitariak dira inguruetako jaietan. Ostean, 20:00etan hasita, Zaldibarko musikariek kontzertua eskainiko dute. Ainhoa eta Iker, Andeka, Leire eta Ander, Elene, eta Luzio igoko dira taula gainera. Gauean, pilota partidua jokatuko dira. Kultur jaietara amaiera emateko, domekan, *Aire Hemendik* antzerkia egingo dute (13:00etan); 18:00etan bertso saioa egongo da, eta ondoren Harresian Zulo taldearen kontzertua.

Zaldibarko udaletxean 1.033 sinadura aurkeztu dituzte eskolako jolastokiaren proiektuari berrekitea eskatzeko

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Ekainaren 25ean, dozenaka herritarrek elkarretaratzea egin zuten udalak *Amesten dugun jolastokia eraikitzen* prozesuari buruz duen jarrera aldatzea eta proiektuari berrekitea eskatzeko. Horrez gainera, goizean 1.033 zaldibartarren sinadurak aurkeztu zituzten udaletxean; biztanleriaren herenak sinatu izana nabarmendu dute. "Udalak birplanteatu egin behar

du jolastokiari buruz hartu zuen erabakia. Une honetan pilota udalaren teiltuan dagoela uste dugu. Gu prest gaude mahaiaren bueltan jesarri eta berba egiteko", azaldu zuten. Udalbatza bilduta zegoela

Eskaria Zaldibarko biztanleriaren ia herenak sinatu izana azpimarratu dute deitzaileek

aprobetxatuta, udaletxeko pleno aretoaren alboan protesta zaratsua egin zuten.

Proiektua "geldi"

Zaldibarko hezkuntza komunitateak 2018an abiatu zuen eskolako jolastokia berritzeko prozesu parte-hartzailea. Lazko udal hauteskundeetako gobernu aldaketaren ondoren prozesua "geldi" dagoela salatu dute hainbat bider.



Ekainaren 25ean egin zuten elkarretaratzea.

BARATZA FRUITADENDA URDAITEGIA
Sta. Isabel, 2 behea
Tel.: 946 225 063
Zaldibar, Bizkaia

PAULAREN ZOKOA KAFE
EL RINCON DE PAULA
07:00etatik aurrera zabalik
Euskal Herria, 18
946 550 481 - Zaldibar
Paularen Zokoa

CAPELO
Birgaikuntzak eta Berrikuntzak
SATE FATXADAK
Kanpoko isolamendu termikoaren sistema
ESTALKIAK
MERKATARITZAKO LOKALAK
ETXEBIZITZAK
ATARIAK
IGOGAILUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
Zeharkalea, 10 behea
ERMUA (Bizkaia)
943 172 767 / 629 401 713 / 629 401 712

SIKULAN Cutting Tool Technologies
WWW.SIKULAN.COM
KASU BAKOITZERAKO SOLUZIO EGOKIENA
C/ Zubiaurre 5 - E-48250 Zaldibar - Bizkaia
Tel. 94 682 74 78 - sikulan@sikulan.com
GAI



ANBOTOREN LAGUNAK

Euskarazko hedabideok mundua ikusteko modu propioa dugu, euskaratik eta euskaraz.

Orain, gure komunitatearen konpromisoa inoiz baino beharrezkoagoa dugu aurrera egiteko, euskarazko eta kalitatezko kazetaritza egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, bizi dugun egoera ekonomikoagaz **ANBOTO**ren jarduna kinka larrian dago.

Jarri ezazu zure alea euskarazko informazioa sortzen eta garatzen jarraitu dezagun, Durangaldea ezagutzen, bertan gertatzen denaren berri ematen eta gure ikuskera zabaltzen jarraitu dezagun.

ANBOTOren laguna izan gura duzu?

Urtean **30 euro** ordainduta, **ANBOTO** komunikazio proiektuari sostengua emango diozu.

Bidali mezua: anboto@anboto.org

Deitu: 94 681 65 58

Bete formularioa: www.anboto.org



Jasone Agirre Elorrión, erakundeetan zeharkako LGTB politika sendoak bultzatzearen alde

Casanovak dioenez, Bizkaian diru publiko asko bideratzen ari dira "errentagarritasun argirik" ez duten proiektuetara

ELORRIO • J.G.

Joan zen zapatuan Elorrión egindako ekitaldian, Iker Casanovak azpimarratu zuen "EH Bildu boto berde, ekologista eta jasangarri bakarra" dela. Casanovaren esanetan, krisi soziosanitario baten erdian egon arren, Bizkaian diru publiko asko bideratzen ari dira "errentagarritasun argirik ez duten proiektu handietara". "Gaur [ekitaldia ekainaren 28an izan zen] sexu askapenaren eta LGTB Harrotasunaren eguna izanik,

batzuen kapitalismo arrosa bazter-tuko duen eredu bat gura eta behar dugula esan gura dizuet, atzerapausorik eta murrizketarik egingo ez duena eta kolektiboen eskubide eta beharizanezko konpromiso politiko irmoa hartuko duena", azaldu zuen Jasone Agirre Bizkaiko zerrendaburuak. Ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik, erakundeetan zeharkako LGTB politika sendoak bultzatzearen garrantzia azpimarratu zuen Agirrek.



Jasone Agirre Elorrioko ekitaldian.



Miren Gorrotxategi Durangoko ekitaldian.

Miren Gorrotxategik osasun sistema publikoaren garrantzia nabarmendu du Durangon

24 orduko pediatria zerbitzuaren eta Durangoko herri galdeketaen aldeko kanpainak ekarri zituen gogora

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Ahal Dugu alderdiak hauteskunde ekitaldia egin zuen Durangon joan zen asteko zapatu goizean, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan kanpaina hasi berritan. Miren Gorrotxategi Ahal Duguko lehendakariak langile publikoen eskubideen aldeko deia egin zuen, osasun arlokoena batez ere. Durangaldeko herritarren "konpromiso soziala" ere nabarmendu gura izan zuen Andra Marian egindako ekitaldian. Durangaldean 24 orduko pediatria

zerbitzuaren eta Durangoko herri galdeketaen aldeko kanpainak ekarri zituen gogora. "Osasun langileen lana txalotzea ez da nahikoa. Osasun sistema publikoa blindatu egin behar da aurrekontuetan, eta langile kopurua handitzea ere beharrezkoa da", defendatu zuen Gorrotxategik. Ekitaldian Julian Rios Durangoko alkateordea ere egon zen, besteak beste. Ahal Duguk langileen aldeko politikak egingo dituela esan zuen, eta "ezkerreko gobernu zabala" proposatu zuen.



**merkataritza
gida sarean**

anboto.org/gida

**Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida euskaraz eta sarean!**

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)



Amankomunazgoak aholkularitza zerbitzua abiatuko du enpresa txiki eta ertainentzat, lehiakortasuna handitzen laguntzeko

Osasun krisitik kaltetuta irten duten enpresei egoera hori "ahalik eta arinen" gainditzen laguntzea dute helburu

DURANGALDEA • A.B./J.D.

Amankomunazgoak hiru proiektu ipiniko ditu martxan osasun krisitik kaltetuta irten duten enpresei laguntzeko. Enpresa txiki eta ertainei aholkularitza emateko zerbitzua da euretariko bat, eta administrazioetatik bultzatu diren neurriei buruzko informazioa jaso ahaliko da bertan, gaur egungo egoera "ahalik eta arinen gainditu" dezaten, Amankomunazgoaren ohar batean azaldu dutenez.

Beste lan ildo batean, enpresa txiki eta ertainek berrikuntzarako zer aukera duten aztertuko dute. Izan ere, berrikuntzetara egokitzea lehiakorrak izateko "funtsezko palanka" dela deritzote, eta gaur egun horixe dela mota horretako enpresen "punturik ahulena".

Lehiakortasun Poloa

Azken lan ildo moduan, ekonomia-aren sustapenean koordinazioa hobetu eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko "gobernantza eredu berria proposatu, kontrastatu eta

sustatu" gura du Amankomunazgoak. Era berean, eta enpresa sa-reagaz lankidetzan, eskualdean gauzatu beharreko proiektu ber-ritzaile espezifikoen identifi-kazioan ere aurrera egin gura dute. Azaldu dutenez, beste erakunde batzuekin elkarlanean aritu dira azken hileetan eredu berriari bu-ruz hausnartzen eta ildo nagusiak

Enpresa txiki eta ertainek berrikuntzarako zer aukera duten aztertzea da beste lan ildo bat

definitzen. Proiektu horren bitar-tez beste pauso bat eman gura dute, eta "beharrezkoa den sozializazio, kontraste eta bultzada prozesua gauzatu eskualdeko erakunde, enpresa, zientzia-teknologia eta gi-zarte arloetako eragile nagusiekin, eragileen benetako beharrianeta-ra egokitzeko, hobetzeko eta bere ezarpenean aurrera egiteko".



Berrikuntzetara egokitzea "funtsezko palanka" dela deritzote amankomunazgotik.

**merezi
duzun
herria**

ehbildu



maddalen

ZURE LEHENDAKARIA



Otxandioko santamaña jaiak bertan behera uztea erabaki dute

Udan zehar bestelako ekintzak egongo direla iragarri dute

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Uztailaren erdialdera Otxandion ospatu ohi diren santamaña jaiak bertan behera utzi dituzte. Horrelaxe iragarri du jaiak antolatzen dituen Santamaña Jai Batzordeak

komunikatu batean. Herritarren osasuna bermatze aldera hartu duten erabakia dela diote. Udalak erabakia babestu du. Hala ere, udan zehar bestelako ekintzak egongo direla iragarri dute.



Aurten ez dituzte santamañak ospatuko.

Uriguenak Oñateren lekukoa hartuko du Durangoko Udalean

DURANGO • JONE GUENETXEA

Maria Oñate Herriaren Eskubidea alderdiko zinegotziak kargua uztea erabaki duela adierazi du. Oñatek urtebete egin du karguan. Orain, Mikel Uriguenak hartuko du haren lekukoa. "Erronka handia eta polita da era berean. Ilusioa eta beldurra, biak sentitzen ditut.

Durangeren alde lan egiteko indarra eta gogoa dauzkat", azaldu du Uriguenak. "Ideologiez eta alderdiez haratago, denok batera lan egiteko beharrezana ikusten dut. Ezberdinen artean elkar ulertzera behartuta gaude herritarren alde lan egin gura badugu", gaineratu du durangarrak.

Nekazaritza ekologikoaren azoka egingo dute zapatuan Elorrión

Azokaren XXIV. edizioa herriko plazan egingo dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Nekazaritza ekologikoaren XXIV. edizioa egingo dute zapatuan Elorrión. Elorrixa ekologia taldeak eta Marisatsak antolatzen duten

azoka herriko plazan egingo dute. Aurten ere udalak babestu du azoka eta EHNEk, Ekologistak Martxanek, Eko Lurrak eta Eko Kontsumoak lagundu egingo dute.

Iurretako pentsiodunak berriro batuko dira astelehenetan

IURRETA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2018ko urtariletik, pentsiodunen mugimenduak astelehenero irten du kalera. Baina COVID-19aren pandemiak eraginda, hainbat hiletan kontzentrazioarik egin barik egon dira Iurretan. Hala ere, Iurretako pentsiodunek ANBOTOrí jakinarazi diotenez,

berriro ere batzen eta euren aldarriak lau haizetara zabaltzen hasiko dira.

Astelehenean, uztailaren 6an, ohiko ordutegian batuko dira; 12:00etan Askondoko plazan. Gainera, uztailaren 6tik aurrera astelehenero batuko direla azaldu dute.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Zaldibarko Inyectados Gabi eta Galter enpresak likidazio fasean daude, ELA sindikatuak ohar batean informatu duenez. Likidazio fase horretan, egoitza nagusia Mallabian duen MEK enpresa taldeak eskaintza bat aurkeztu dio konkurtso-administrazioari. Enpresa horiek eskuratzeko interesa agertu dio, baina "gaur egungo 52 langileetatik 29gaz soilik", ELAren esanetan. Hau da, "23 langileren enplegua erregulatzeko espediente-a aurkeztu du, lanean jarraitu ez dezaten".

Horrez gainera, jarraituko luketen langileak herrialdeko lan hitzarmenaren arabera arautu gura dituzte eta ez enpresa hitzarmenaren arabera. Horrek egungo lan baldintzak "argi eta garbi okertzen" dituela salatu du sindikatuak.

Horren aurrean, langileen ordezkaritza eta MEK taldearen arteko elkarbizketa prozesu bati hasiera emateko eskatu du ELAk, eta baita langilegoaren etorkizuna aztertze ere, bideragarritasun plan batean oinarrituta. Horrez gainera, lanpostu guztiak eta egungo lan baldintzak "mantentzea" eskatu dute, besteak beste.

Gaur egun langileek bizi duten egoera salatzeko eta irtenbideak eskatzeko, atzo kontzentrazioa egin zuten Mallabian, MEK taldeak

MEK taldeak Inyectados Gabi eta Galter enpresak eskuratu gura dituela dio ELAk

Mallabiko taldeak likidazio fasean dauden Zaldibarko enpresa biak eskuratu gura dituela esan du sindikatuak



Atzo kontzentrazioa egin zuten Mallabian.

Goitondo industrialdean duen instalazioan.

2018an greba

Oraingoa ez da langileek protesta egingo duten lehenengo aldia.

2018ko azaroan, Zaldibarko Inyectados Gabi eta Galter enpresetako langileek 15 eguneko greba egin zuten. Ondoren, zuzendaritzagaz aurreakordio batera heldu zirela informatu zuten.

Iritzia

Gutuna

Durungaldeko herritarrei:

Osasun etxeetako langile guztion partetik, larrialdi egoera honen aurrean izan dozuen jarrera eta jokabide arduratsua eskertu gura deusuegu beharrezkoak izan ez diren kontsultak saihestu izanagaitik.

Egun hauetan zeuek kudeatu dozue zuen osasuna.

Osasuntsu bizitzeko zutabeak hauexek direla pentsatzen dogu:

- Janari osasuntsua.
- Arnasketa kontzientea.
- Ariketa fisikoa.
- Emozioen adierazpena eta pertsonekin hartu-emana.
- Naturagaz hartu-emana.

Izan ere, gure osasuna ez dago gure osasun sistemaren edo industria farmazeutikoaren esku.

Osasuna ez da oparitzen, erosten edo saltzen dan zerbait.

Osasuna gizartearen eta pertsona bakoitzaren lorpena da.

Bide horretan jarraitzen animatzen zaituztegu.

Norbera bere osasunaren jabe eta eraikitzaile izaten.

Gu zuei bide horretan laguntzeko gagoz.


Eskerrik asko

Durungaldeko Osakidetza langileak.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:


Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).





SUDOKUA

Bete itzazu beheko irudiekin
sudokuan hutsik dauden laukiak



DIFERENTZIAK

Marrazki bi hauen artean 10 diferentzia
daude. Denak topatzeko gai zara?



TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu gehien duen probetatik gutxien duenera.



GALDERA

Alboan dauden zein
bi probeta erabilita
lortzen dugu
kolore urdina?





















Noiz garbitu behar dira eskuak?

GALDERA



DOMINOA

Marraztu itzazu
falta diren irudiak
lauki zurietan.



Beheko berbak erabilta
idatzi esaera zaharra.

Beheko berbak erabilta
idatzi esaera zaharra.

ni

Gezurra

eta

esan


baino

kalean

lehenago

nuen

etxean



ERREZETA



OSAGIAK (10-12 lagunentzat)

Oinarria egiteko:

- 120g gurin
- 175g gaileta (Maria motakoak)
- Edalontzi bat ur
- 800ml laranja zuku
- 500g gazta krema (Philadelphia motakoa)
- 100g azukre
- 9 gelatina lamina

Dekorazioa egiteko:

- Edalontzi erdi ur
- 250ml laranja zuku
- 3 gelatina lamina



Urtu gurina mikrouhin-labeen. Txikitu gailetak eta nahastu gurinagaz. Ipini moldean eta sartu hozkailura.



Laranja zukua egin eta banatu, 800ml alde batetik eta 250ml bestetik.



Ipini ura berotzen eta bota gelatina laminak. Urtuta daudenean utzi epeltzen. Nahastu osagai guztiak: zukua, gazta krema, gelatina eta azukrea.



Nahastutako guztia bota gaileta gainera eta sartu berriro hozkailura (ordu bat).



Hozkailutik ateratzerakoan egiaztatu gogor dagoen labana sartuta.



Ipini ura berotzen eta bota gelatina laminak. Utzi epeltzen eta zukuagaz nahastu. Jarraian, moldera bota eta hozkailura sartu, ordu erdi bat.



Hozkailutik ateratzerakoan egiaztatu gogor dagoen labana sartuta.




Ondo badago, atera moldetik eta jateko prest!



MARRAZTU

Marraztu ezazu nahiago duzun moduan.



**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitez berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak



UZTAILA

3 barikua
> **Los Txamukos mariatxiak** MUSIKA (Nagusien-tzat)
19:00 Landako eskola
> **Afrika** MUSIKA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

4 zapatua
> **Haatik Dantza Errimak bi oinetan** DANTZA
20:00 Landako eskola

5 domeka
> **L'Atelier Dantza Eskola** 'Uda-gau bateko ametsa' DANTZA
18:00 - 20:00 Landako eskola

9 eguena
> **Tomax-en abenturak** "Azken balea" ANTZERKIA
19:00 Landako eskola
> **Potxin eta Patxin** "Ingurugiroa zaindu" ANTZERKIA
19:00 Kurutziaga ikastola

10 barikua
> **Ekuru** MUSIKA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

16 eguena
> **Yogurinha Borova, Cecilia Paganini & Friends, Ibai Sanchez DJ** Bingo Boluda
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

17 barikua
> **Amer i Africa Circ Cía** (Envà) ANTZERKI ZIRKUA
20:00 Kurutziaga ikastola
> **Carlos Herrero** 'Transhumante' MUSIKA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

19 domeka
> **Abarkas, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus** BERTSO SAIOA
13:00 Plateruena Kafe Antzokia
> **Durangoko Orfeoia** MUSIKA (Nagusientzat)
19:00 Landako eskola

24 barikua
> **Ana Galarraga** 'Bizitzaren laborategian' IPUIN KONTALARIA
11:00 - 17:00 - 18:00 Kurutzesantuko lorategia
> **Las XL** "Abandónate mucho" MUSIKA/ANTZERKIA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

25 zapatua
> **El Gran Dimitri** "The great circus show" ANTZERKIA
20:00 Landako eskola
> **Xampatito** "Só" ZIRKUA
20:00 Kurutziaga ikastola

30 eguena
> **Yogurinha Borova, Cecilia Paganini & Friends, Ibai Sanchez DJ** Bingo Boluda
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

31 barikua
> **Iparbeltzok** MUSIKA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia



ABUZTUA

1 zapatua
> **Rojo Telón Circo** "Son ellas" ZIRKUA
20:00

2 domeka
> **Maria Rivero** MUSIKA APERITIF SESSION
13:00 Plateruena Kafe Antzokia

7 barikua
> **Amak** MUSIKA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

8 zapatua
> **Zanguango** 'Al otro lado' ANTZERKIA
20:00

9 domeka
> **Maren** MUSIKA APERITIF SESSION
13:00 Plateruena Kafe Antzokia

13 eguena
> **Yogurinha Borova, Cecilia Paganini & Friends, Ibai Sanchez DJ** Bingo Boluda
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

15 zapatua
> **Mumusic Circo** "Flou Papagallo" ANTZERKI ZIRKUA
20:00

16 domeka
> **Olatz Salvador** MUSIKA APERITIF SESSION
13:00 Plateruena Kafe Antzokia

21 barikua
> **Maite Arrese** "Yogipuinak" IPUIN KONTALARIA
11:00 - 17:00 - 18:00
> **Sara Zozaya** MUSIKA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

22 zapatua
> **Dantzaz Konpainia** "UNE + Basoa" DANTZA
20:00
> **Markeliñe Antzerki Taldea** "Psike" ANTZERKIA
22:30

23 domeka
> **Miren Amuriza, Erika Lagoma, Uxue Alberdi** BERTSO SAIOA - Gai jartzailea Ainhoa Urien
13:00
> **Don Inorrez** MUSIKA APERITIF SESSION
13:00 Plateruena Kafe Antzokia

27 eguena
> **Yogurinha Borova, Cecilia Paganini & Friends, Ibai Sanchez DJ** Bingo Boluda
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

28 barikua
> **Sua** MUSIKA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

29 zapatua
> **Cia kicirke** "Comediante" ZIRKUA
20:00
> **Laurentzi producciones** "El hermano de Sancho" ANTZERKIA
19:00

IRAILA

4 barikua
> **Ganso & Cía** "Cabaret Panoli" ANTZERKIA
20:00

5 zapatua
> **Ganso & Cía** "Cabaret Panoli" ANTZERKIA
20:00

UMEENTZAKO TAILERRAK

4-8 urte

> **Artea zure oinetara**
11:00-12:00 (Eguenero)

6-10 urte

> **Balerdiren lorategia**
11:00-12:00 (Eguazteno)

7-12 urte

> **Yinkana**
11:00 eta 12:30
Uztailak 1 eta abuztuak 4

> **Txotxongilo tailerra**
11:00 eta 12:30 / Uztailak 7

- **Koadernaketa tailerra**
17:00 eta 18:30 / Uztailak 9

> **Euskal mitologia tailerra**
11:00 eta 12:30 / Uztailak 14

> **Komiki tailerra**
17:00 eta 18:30 / Uztailak 16

> **Olerki xuxurlatuak**
11:00 eta 12:30 / Uztailak 21

> **Istoriak sortzen tailerra**
17:00 eta 18:30
Uztailak 23 eta abuztuak 20

SORTZEKOAK

> Eskulan literarioak

11:00 eta 12:30
Uztailak 28 eta abuztuak 25

> Jolasak tailerra

17:00 eta 18:30
Uztailak 30 eta abuztuak 28

> Txapa literarioa tailerra

17:00 eta 18:30 / Abuztuak 6

> Irrati saio tailerra

11:00 eta 12:30 / Abuztuak 11

> Egunkari/aldizkari tailerra

17:00 eta 18:30 / Abuztuak 13

> Antzerki tailerra

11:00 eta 12:30 / Abuztuak 18

**Denboraren bankuak eta
Udaleko immigrazio
zerbitzuak antolatuta**

> Haurrentzako tailerrak

11:00 Uztailak 4

> Irteera Neberondora

8:45 San Agustin Kultur Gunean Uztailak 10

> Kondaira mitologikoak eta tailerra

11:00 Uztailak 18

> Mugikorrarekin egindako argazkien tailerra

11:00 Uztailak 25 (11 urtetik aurrera)

Museoko lorategian izango dira eta eguraldi txarrarekin San Agustin Kultur Guneko sarreran. Izen-ematea museoan.

BISITA GIDATUAK

> Durango, aztarnategi arkeologiko bat.

18:00-20:00 (HELDUAK)

Uztailak 7 eta 21 euskaraz / uztailak 14 eta 28 gaztelaniaz

12:00-14:00

Abuztuak 4 eta 18 euskaraz / abuztuak 11 eta 25 gaztelaniaz

“Konfinamenduak kaleak ahuldu ditu eta Uda Kulturaz Blai egitarauagaz biziberritu egin gura ditugu”

Durangoko Udalak ia 100 kultur ekitaldi antolatu ditu uztail eta abuzturako; kulturgintzaren sektorea indartzea eta kalea girotzea dute helburu

DURANGO •

Koronabirusaren krisiak gogor kolpatu du kulturgintzaren sektorea. Egoera horren aurrean, Durangoko Udalak apustu handia egin du kulturgintza babestu eta sektoreak bizi duen egoerari aurre egiteko. Horretarako, udako egitarau oparoa antolatu dute. Programazio hau prestatzen ibili dira Arantza Arrazola San Agustin Kultur Gune-ko arduraduna eta Ane Abanzabalegi eta Julian Ríos zinegotziak. Ia 100 ekitaldi antolatu dituzue uztailleko eta abuztuko programaziorako. Koordinazioa ez zen erraza izango.

Arantza Arrazola: Oso konplikatu izan da hain denbora gutxian horrelako eskaintza bat koordinatzea, baina emaitza izugarria da. 38 kultur ikuskizun taularatuko dira arte eszenikoetako diziplinei dagokienez. Bestalde, beste 59 ekimen ere egingo dira Museoak, Bibliotekak eta Udaleko Migrazio Sailak antolatuta.

Normaltasun berri honetan, zein neurri hartuko dituzue?

Julian Ríos: Segurtasun neurri zorrotzak hartu ditugu, eta sarrerak doan izan arren, aforoa



kontrolatuko dugu. Abuztura begira, ahaleginduko gara ikuskizunak auzotara eramaten.

Konfinamendu sasoian, kultura helduleku bat izan da herritar askorentzat. Orain kalera irten daitekeenez, herritarren gozagarri izan daiteke?

Ane Abanzabalegi: Egoera hau erronka moduan irudikatu dugu. Konfinamenduak kaleak ahuldu ditu, eta Uda Kulturaz Blai egitarauagaz biziberritu egin gura ditugu.

Kulturgintzak babesa behar du. Sektoreari begira, Durangoko Udalak zein aurreikuspen dauka?

A. A.: Udako kultur programazioaren aurrekontua 25.000 eurotik 95.000 eurora igo da. Hau ez da kulturgintzara bideratuko dugun egitasmo bakarra. Besteak beste, 100.000 euroko diru poltsa sortu dugu kultur sorkuntzara. Horrez gainera, kultur ikuskizunetara bideratutako diru partidei eutsiko diegu eta Kultura Bonua sortuko dugu lehenengoz San Agustin Kulturgunerako, Plateruena Kafe Antzokirako eta Zugaza zinemarako.

“Eskerrak promozio lana eginda geneukala; horrek salbatu du 'Limonas en invierno'”

Udaberrian 'Limonas en invierno' hirugarren lanaren aurkezpen bira egitekoa zen Izaro; udazkenean egin gura du



Izaro Andres Zelaia

Musikaria
Mallabia | 1993

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

2020a Izaroren urtea izan behar zen. 'Limonas en invierno' lanak harrera aparta izan zuen (eta izaten ari da), eta Euskal Herriko areto nagusietariko batzuetatik (Donostiako Kursaal, Iruñeako Baluarte eta Bilboko Euskalduna) egitekoa zen birarako sarrera guztiak saldu-ta zeuden. Koronabirusa agertu zen, eta ostean gertaturikoa jakina da. Aurrera begira, konfinamenduagaz ezertxo ere ez aurreikusten ikasi duela dio: "Ikuskiko dugu heltzen denean".

Zelan joan da konfinamendu sasoi? Galdera horren erantzuna oso luzea da. Abentura bat izan da, eta

izaten ari da. Fase asko bizi izan ditut, baina onartu behar dut, alde profesionala kenduta, oso zoriontsu izan naizela konfinatuta, aspaldi lortu bako oreka osasuntsu batean, burua eta gorputza, neure burua lehenesten eta anonimo. Alde profesionala, hondamena. Dena zalantzan ipini dut egun askotan, eta *depre* puntu hori izan dut, horri lotuta. Baina alde onak indar gehiago du balantzan. Deseskalatzea askoz ere gogorragoa egiten ari zait.

Zelan eragin dio itxialdiak diskoaren zabalkundeari?

Bat-batean gelditu du. Dena atzeratu, bertan behera utzi, dena delakoa. Eskerrak promozioa eginda ge-

neukala; horrek salbatu du. Orain birari zelan eutsi asmatzea da kontua. Ezjakintasuna da txarrena. Guk lanean jarraitzen dugu, burubelarri, lan horren emaitza fisiko eta ekonomikorik ikusiko dugun jakin barik. Baina ez da esperantza galdu behar. Noizbait zabalduko ditugu berriro antzokiak, urrian espero dut, eta orduan negar egingo dugu, pozaren pozez.

Ekonomikoki zein psikologikoki kolpe gogorra izango zen.

Bai, oso gogorra. Osasun mentalaren funanbulista, horixe da niretzat izenburua. Baina irten dugu kalera, denbora eta bizitza aurrera doaz beti, gugaz edo gu barik. Gauzak beste modu batera hartzen ere

ikasi dut, benetan lasaiago bizi gaitzkeela deskubritu dut eta erritmo ez hain frenetikoan bizitzea lortu gura nuke. Errealitatea da kontzertuak behar ditugula ekonomikoki aurrera jarraitzeko.

Sasoi ona izan da konposatzeko ala gurago izan duzu deskonektatu?

Gurago izan dut deskonektatu. Jende askok irudikatu du konfinamendua "sortzaileontzat" produktiboa izateko espazio perfektu modura, baina ez dut uste horrela denik. Ez delako produktibitate kontua, izate eta sentitze kontua baino. Hori baino konplexuagoa da artearekiko komunikazioa. Eta oso anitza da. Egoera eta pertsona bakoitzak bere hartu-emana du arteagaz.

Diskora itzulita, 'limoiaren unibertsoa' alpatu izan duzu elkarriketa askotan. Zer da?

Nire mundu fantastiko bat. Nire subkontzientearen gotorlekuetarikoa bat. Urte luze bi eman ditugu unibertso hau diseinatzen. Bost espazio ditu: etxea, oroitzapenak, pasioa, heriotza eta iraultza. Kantuak unibertso horretan bizi dira, bakoitza bere espazioan.

Diskorako konposatzerakoan, igarri duzu preslorik?

Egia esan, ez. Bigarren diskoan presio handia sentitu nuen, baina hirugarren honeguz gogoa besterik ez dut sentitu. Askotatu dut prozesuaz. Oso luzea eta intentsoa izan da, baina gogotik gozatu dut.

Noizbait zabalduko ditugu berriro antzokiak, eta negar egingo dugu pozaren pozez?

Gustura aritzen zara genero bakarrari lotu barik?

Remi Wolfek dioen moduan, genero musikalen kontua apur bat zaharkituta geratzen hasi da, dena zopa bat delako. Nire sormenaren erdigunea abestia da, eta hortik aurrera datorrena abesti horren apaingarria baino ez da, jolasteko leku asko uzten duena.

Produktzio aldetik ere nabaria da lana.

Egia esan, lan handia egin dugu eta oso pozik gaude. Limoiak iraungi egingo zaizkit martxa honetan [barrez], baina oso harro gaude egin dugunaz; bideaz zein emaitzaz. Ordu asko eman ditut nire musikariekin kantak atontzen, eta ez zaizkigu trabatu. Oso erraza izan da. *You* abestia Julien Idigorasek ekoitzi du. Soinu aldetik ezberdinena da eta biziki maite dut zelan geratu zaigun. *Eason* diskoaren moduan, Eñaut Gaztañagaren estudioan grabatu dugu eta sentitzen dut oso ondo ulertzen duela gure soina.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o **MIÑAN**
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

2^o **AITAREN ETXEA**
Karmele Jaio (Elkar)

3^o **IBAIERTZEKO IPUINA**
Oihane Amantegi (Elkar)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
UDAKO ORDUTEGIA

EKAINAK 22 - IRAILAK 4 🕒 08:30 - 13:30	ABUZTUAK 3 - 7 🕒 09:00 - 13:00	ABUZTUAK 10-21 🔒 ITXITA
---	-----------------------------------	----------------------------

UDAKO MAILEGUAK
EKAINAK 15 - IRAILAK 7
Beste liburutegierako liburuak eta nobedadeak izan ezik

TaupaDA! Ielopean, Durangoko Azoka "egokitua" izango da 2020koa; emanaldi digitalek hartuko dute indarra

Abenduaren 5etik 8ra egingo da Durangoko Azoka aurten; koronabirusaren eraginez, hainbat neurri iragarri dituzte

DURANGOKO AZOKA • ARITZ MALDONADO

Ziurgabetasun egoerak baldintzatuta, baina euskal kultur-gintzaren urteroko topalekua antolatzeko gogoz, Gerediaga Elkarteak agerraldia egin du aste honetan. "Inork ere ez digu ziurtatzen zelan egongo garen abenduan, eta parean dugun egoera zaila da", azaldu zuen Nerea Mujika presidentek. Hala ere, herritarrek erantzun zuten dutelakoan daude. "Denok egokitu beharko dugu", esan zuen. Argitaletxe eta erakundeekin "etengabekoa" da hartu-eman, Arantza Atutxa elkartearen kudeatzailearen esanetan.

Abenduaren 5etik 8ra bitartean egingo da Durangoko Azokaren 55. edizioa. Egun bat gutxiago edukiko du, izan ere, ikastetxeentzat izan ohi den lehenengo egunean Landako Guneko ateak itxita egongo dira. Lehenengo eguneko programazioa digitalki jarraitu ahalko da; baita hurrengo egunetakoa ere. Ez da neurri bakarria izango. Besteak beste, bisitari kopurua kontrolatu egingo da, zuzeneko

emanaldi eta kontzertu gutxiago egingo da, eta salmahai gutxiago egongo dela aurreikusten du Gerediagak.

Digitalaren indarra

"Pilaketak ekiditeko neurriek", azokako saltokiei ez ezik, guneei

Bisitari kopurua kontrolatu egingo da eta salmahai gutxiago egongo da, besteak beste

ere eragingo diete. "Programaren zati bat modu birtualean eskainiko dugu", adierazi zuten. Azokak iraungo duen egunetan, Durangoko Azokak denda digital bat ipiniko du bere webgune ofizialean.

Gerediagak goiburu baikorra aukeratu du 2020ko azokarako: TaupaDA!. "Durangoko Azokak euskal kultur-gintzari hauspoa ematen jarraituko du beste urte batez", azpimarratu zuten.



Gerediagak goiburu baikorra aukeratu du 55. Durangoko Azokarako.

Gai librean

Berezitasunik gabe, berezi

Konfinamendu garaian sortu den kulturaren kontsumoak argi utzi du –aurretik inork zalantzarik bazuen– zeinen garrantzitsuak diren liburu, disko, komiki, antzerki, dantza, bertso, margo, kontzertu... eta abarrak gure ongizaterako. Streaming-a nagusi bihurtu zaigu hile batzuez eta sortzaile askoren etxeko egongelak eta entsegu lokalak ezagutu ditugu denbora horretan, berdin baitzitzaigun zein baldintzatan ikus-entzuten genituen, gure garuna elikatzen zuten kultur-pilula horiek jasotzen genituen bitartean.

Baina atzera begira jarriz gero, duela urtebete adibidez, oso bestelakoa zen egoera, publikoa zuzenekoetara joateko ahaleginetan izugarriak egin behar izaten baitziren. Esperientzia berezi modura eskaintzen zirenak, formatu berezietan, leku berezietan, aurrez jakin gabekoetan, eta batzue-



Iñintza Orbegoiz
Igartua
Plateruena

Duela urtebete bestelakoa zen egoera, publikoa zuzenekoetara joateko ahalegina izugarria zen

Nik izugarrizko gogoia dut albokoaren izerdia usaindu dezakezun kontzertu batean egoteko, zuek ez?

tan zer ikusiko genuen ere jakin gabe... Baina berezia behar zuen, ezinbestean, jendea ikuskizunetara joateko, honek emanaldiak berak baino garrantzi gehiago hartuz batzuetan. Sare sozialek ere izango dute errua agian, hor azaltzen baikenituen ez dakit zein lekutako eszenatokia edo ez dakit nolako apainketa. Akorda-

tzen naiz, gaztetxoak ginenean, nola joaten ginen astebururo herriko gaztetxe, taberna eta aretoetara, edozein zelarik ikusi eta entzungo genuena, eta edozein zelarik formatua, inongo apainketa berezirik gabe, emanaldiak berak eskaintzen zuenaz soilik gozatzeko asmoz. Eta, zin dagit, sare sozialetan jartzeko argazkirik ateratzen ez bagenuen ere, bertan sortzen zen giroa, artisten eta publikoaren arteko feedback-a, inongo berezitasunik gabe, ezin bereziagoa zela.

Egia da gaur egungo egoerak ez digula askatasunik ematen zuzeneko emanaldiak nahi bezala disfrutatzeko, baina musikorik eta aforo murrizketarik gabeko garaia iristen direnean, areto, gaztetxe eta taberna zuloak inongo parafernaliarik gabeko emanaldiak antolatzen hastean, jendearen erantzuna zein den ikusi beharko da. Nik, behintzat, izugarrizko gogoia dut albokoaren izerdia ere usaindu dezakezun kontzertu batean egoteko, zuek ez?

“Hain denboraldi ona egin eta gero, erabaki gogorra izan da igoera faseari uko egitea”

Hainbat arlotan ikusten zuten ziurgabetasunak eraman du Sasikoa areto-futbol kluba igoera faseari ezezkoa ematera



Francis Muñoz Hervás
Sasikoa areto-futbol klubeko presidentea
Ciudad Real (Durangon bizi da) | 1975

ARETO FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO
Sasikoa sekulako denboraldia egin zebilen Hirugarren Mailan osasun krisia heldu zen arte. Ostean, Bigarren B Mailarako igoera fasea jokatzeko eskubidea zuen, baina uko egin dio. Klubeko presidenteak erabaki gatx horren arrazoiak eman ditu eta denboraldi berrirako zer asmo dituzten kontatu du.

Zergaitik egin diozue uko igoera fasea jokatzeari?

Arrazoi nagusietariko bat da ez dakigula Bigarren B Mailan aritzeak zer gastu ekarriko ligukeen. Izan ere, oraindik ez dakigu maila hori zelan berrantolatuko duten eta zen-

bat diru behar dugun joan-etorrietarako. Badakigu gure aurrekontua nahikoa dela Hirugarren Mailan jokatzeko, baina Bigarren B Mailarako... Kontua da mailaz igo ondoren uko eginez gero, isun ekonomikoa jasotzeaz gainera ezingo genukeela hurrengo denboraldian mailaz igo. Askok arriskatzeko iruditzen zitzaien. Horrez gainera, COVID-19ak eragindako ziurgabetasunaren arazoa ere hortxe dago. Azkenean, hamaika kontu baloratu ditugu erabakia hartu aurretik. **Zer diote jokalariek?** Gehienak ados zeuden ez igotzeko erabakiagaz. Bozketa bitartez erabaki genuen ez jokatzeko. Hortik au-

rrera, batzuek igoera fasea jokatu gura zuten, sari moduan, eta beste batzuek gurago zuten ez jokatu, prestaketa faltagaitik. **Sare sozialetan aipatu duzue igoetzeko aukerari uko egitea azken urteetako erabakirik konplikatuena izan dela.**

“**Mailaz igo ondoren uko eginez gero, isun bat jasoko genuen. Askok arriskatzeko iruditzen zitzaien**”

Zorionez, erabakiak taldean hartzen ditugu. Azken batean, jokalaria asko zuzendaritzan daude. Ni neu taldeko jokalaria ere banaiz. Edozelan ere, hain denboraldi ona egin eta gero, erabaki gogorra izan da igoera faseari uko egitea. Azken batean, klub moduan hazi egin gura dugu, eta, horretarako, goragoko mailetara igotzea da onena. Baina, tira, geure lana egiten jarraituko dugu; hazten jarraitu gura dugu. Ez dugu areto-futbolera denborapasa bakarrik doan taldea izan gura.

Zein da hazten jarraitzeko errezeta?

Esaterako, talde guztien koordinazioa eramango duen kirol zuzendari bat fitxatu dugu. Gainera, prestatzaile fisiko aritzeko titulua du eta jokalaria ere arituko da. Katalana da eta Eibarren bizi da. Bigarren Mailan jokatu du, Debabarrena taldeagaz, eta, beraz, badu esperientzia. Hurrengo denboraldira begirako apustu bat da.

Jokalarien aldetik, zelan dago talde nagusia?

Pare bat jokalaria kenduta, beste denek jarraitu egingo dute. Elorriotik jokalaria bat etorriko da. Aurretik gugaz egondako beste bi itzuli egingo dira. Futbola probatu gura izan dute eta ez zaie gustatu. Gainera, koak filialetik edo gazteen taldetik hartuko ditugu.

Beste aldaketa bat aulkian izan da. Aitor Darokak talde nagusiko entrenatzaile izateari utzi dio, sei urteren ondoren. Zergaitik?

Ziklo baten amaiera heldu da. Bere aldetik eta gure aldetik, horixe ikusten genuen. Urteetan egin duen lana ikaragarria izan da: nagusien taldean, harrobian... Landako ikastetxeagaz sinatutako akordioa berari eskerrak izan da... Eskerrak ematen dizkiogu, asko eman digulako.

Iker Saenz de la Cuesta hartu du bere tokia. Urteetan Elorrioko Buskantzan aritu da. Esaterako, bera

izan zen entrenatzailea Buskantza Bigarren B Mailan ibili zen urtean. **Zelan konbentzitu duzue?**

Aitor Darokak proposatu zigun. Guk beste bi-hiru izen genituen buruan, eta Ikerrek beste eskaintza bat ere bazuen. Azkenean, beragaz berba eginda, akordio batera heldu ginen.

Zer eman diezaioke taldeari?

Talde bat eramateko behar diren gaitasunak dituela erakutsi du Elorrioren, eta horixe bilatzen dugu. Gainera, etxekoa da, durangarra, eta gertutik ezagutzen du inguruko areto-futbolaren egoera.

“**Talde guztien koordinazioa eramango duen kirol zuzendaria fitxatu dugu. Apustu bat da**”

Emakumen taldea berreskuratzea urtero buruan duzuen zerbait da, baina azkenean ez da gorpuzten. Zelan dago kontua aurtent?

Une honetan bertan ez dago emakumeen taldea sortzeko aukerarik. Guk, badaezpada, urtero ematen dugu taldearen izena federazioan. Gero, isun bat ordaindu behar izaten dugu uko egitearren, baina, tira, gurago dugu gutxienez azken unera arte ahalegindu. Gatx dago. Sare sozialen bitartez eta ahoz aho koagaz ahalegintzen gara, baina... Hiru-lau neska gaz bakarrik ezin dugu talderik sortu. Beharbada Mendibeltz klubagaz [Durangoko emakumeen areto futbol talde bakarra] akordio batera heltzea izan daiteke irtenbidea. Bion artean klub bakar eta indartsu bat sortzea. Orain pare bat urte horretan ahalegindu ginen, baina ez zuen aurrera irten. Dena dela, aurtent ere azken unera arte ahaleginduko gara emakumeen taldea sortzen. Interesa duen edonor gugaz hartu-emanen ipini daiteke.

Beste ezer gehitu gura duzu?

Gure babesleei zein Durangoko Udalarri eskerrak eman gura dizkiogu. Euren laguntza ezinbestekoa da guk aurrera jarraitzeko.

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Saltsan

MAKALLAU
Saltsan

saltsan.com

Egoera berezi honetan
MAKALLAU SALTSAN
KATERIN zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezailtanerezureondoan

C E R A M I C A S
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

Tabirako auzotarrek landutako makilak opari uztailaren 11ko mendi lasterketako irabazleentzat

"Garaikur diferentea da eta irabazleei gustatzea espero dugu", dio Juanjo Fondadok, Tabira auzoko jai batzordeko kideak

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO
Aurten bertan behera geratu dira Durangoko Tabira auzoko San Pedro jaietan sasoi honetarako antolatu ohi diren ekimenik gehienak, baina jai batzordeak eutsi egin die uztailaren 11rako aurreikusita dauden mendi martxari eta mendi lasterketari. Aurten ukitu berezia eman gura izan diote ekimenari, eta garaikur bereziak diseinatu dituzte irabaz-

Irteeran parte-hartzaileek talde txikitan irtengo dute, jende pilaketak ekiditeko

leentzat: auzotarrek lantaldean egindako makilak. "Hurrondo zuriz egindakoak dira, orain hile batzuk mendian hartutakoak. Harrezkero, sikatzen egon dira. Ondoren, taldean landu dituzte eta plaka dotore batzuk ipini dizkiegu. Garaikur diferentea da eta irabazleei gustatzea espero dugu", adierazi du Juanjo Fondado jai batzordeko kideak. Mendi

lasterkertak 18 kilometro ditu eta 10:00etan hasiko da, Tabirako elizatik. Mendi martxari ordu-bete lehenago ekingo diote eta ibilbide bi daude aukeran: 10 eta

18 kilometroko bana. Ibilbideari dagokionez, Santi Kurutzetik Atxartera eta handik Txakurzulo ingurura igoko dute. Gero, Mañaritik bueltatuko dira. Irteeran

parte-hartzaileek talde txikitan irtengo dute, jende pilaketak ekiditeko. Izen-ematea astelehen gauerdia arte egongo da zabalik, www.kirolprobak.com webgunean.



Jai batzordekoek Sekulebedarra klubaren laguntza izango dute mendi lasterketa antolatzeko.



Urrutikoetxeak eta Irribarriak bikotea osatuko dute Zaldibarko jaialdian

ZALDIBAR • J.D.

Olazar pilotalekuak profesionalek udako pilota txapelketako partidu bat hartuko du bihar, Zaldibarko jaien barruan. Bikote bat Mikel Urrutikoetxeak eta Iker Irribarriak osatuko dute. Aurrelari arituko da zarata-moarra, eta atzelari aramarra. Oinatz Bengoetxea eta Julen Martija izango dituzte aurkari.

Atariko partiduan, Aitor Elordi mallabitarrek eta Ibai Zabala berriztarrek elkarregaz jokatu dute. Durangaldeko pilotariek Arteaga eta O. Etxebarria izango dituzte aurkari.

Jaialdia 22:15ean hasiko da eta sarrerak pilotalekuko leihtailan eskuratu daitezke.

Jokaldia

'Erdal' pilota

Alarma egoerak iraun duen denboran, martxoaren 14tik ekainaren 19ra, asko hitz egin da enpresa profesionalen partetik pilotazaleok izan dugun informazio faltari buruz. Pilotari batzuk ere kexu azaldu dira komunikabideetan, eta tratu hobea aldarrikatu dute; besteak beste, Jokin Altuna amezketarrak. Baina informazio falta ez da kezka bakarra. Informazio iturrietako euskararen presentzia hutsalak ere arduratzen eta haserretzen gaitu.

Aspek eta Baikor, euren web-orrietan gainera, Facebook eta Twitter bidezko aplikazioak erabiltzen dituzte nagusiki berriak, bideoak, argazkiak, zorion-agurrak eta antzerakoak zabaltzeko, eta horien bitartez lortzen dute pilotazale batzuegana hurbiltzea; baina baita beste batzuegandik urruntzea ere. Izan ere, esan bezala, euskal hiztunak kontuan izan gabe informatzen dute gehienetan, eta gure kirola euskaraz

"Informazio falta ez da kezka bakarra. Informazio iturrietako euskararen presentzia hutsalak ere arduratzen gaitu"

"57 argitalpenetatik 3 baino ez dira izan euskara hutsean Baikon, 9 ele bietara eta 36 gaztelaniaz"

ulertzen dugunoi arrotzak zaizkigu gaztelaniaz idatzitako txioak zein erdarazko lokuzioarekin publikatzen diren tantoen bideoak.

Hona hemen aipatutako denboratartean bi enpresen Twitter kontuak aztertu ondoren jasotako datu batzuk: Asperi pilotazalea batere bizigarririk gabe eduki izana egotzi dakioko. Oso aktibo hasi zuten itxialdia Twitter kontuan, eta martxoaren 15ean 9 pilotariren animo

mezuak igo zituzten. Ondoren, ekainaren 15a bitarte, zazpi pilotariren zorion-agurrak baino ez zituzten publikatu. Azken lau egunetan, partiduen itzuleraren berri izatearekin batera, egunkarietako albisteak bertxiotu zituzten gehien bat. Baikor, aldiz, aktualizazio ugari egin ditu bere kontuan (57 argitalpen) eta, zuzeneko partiduen faltan, pilotazaleon grina mantentzea izan du helburu, aurretik jokaturako neurketen eta tanto solteen bideoak partekatuz. Helburua zaleen multzo konkretu batekin soilik lortu nahi zuela zirudien, ordea. Izan ere, 57 argitalpenetatik 3 baino ez dira izan euskara hutsean, 9 ele bietara (denak zorion-agurrak), 9 emotikonoekin izendatuak eta 36 gaztelania hutsean.

Dirudienez, askotan, ahaztu egiten dugu kirol honek duen zaleen gehiengo euskal hiztuna dela.

Kirolaren ospea zabaltzearen ize-nean, jarraitzaile leialen gehiengo baztertzea ez zait iruditzen marketin-planik onena.



Iñaki Iza Zarazua
Pilotari ohia

DURANGALDE



Gerendiagako foru zelaia

Gerendiagako foru zelaian harrizko 12 jesarleku. Bertan, mendeetan Durangaldeko elizateetako ordezkariak euren udalerrien arteko auziak konpontzen zituzten. Anbotoko mendilerroaren ikuspegi zoragarria dago bertatik. Gerendiagako San Salbadore jaiak abuztuaren 6an ospatzen dituzte.

KO TXOKOAK?



Errebonbilloen irudia Elorrioko herrigunean

Urtero, urriko lehenengo domekan, Errebonbilloek Elorrioko kaleak zeharkatzen dituzte Lepantoko bataila eta tokiko gerlarien itzulera gogoratzeko prozesioan. Errebonbilloak gogoratzeko, herrigunean figura ezagun hau ipini zuten.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

www.inmoduranguesado.com



IURRETA

2
logela

Iurreta. 2 logela, komuna, sukaldea eta komuna. Igogailua. Eguzkitsua. C.E.E= E.

120000€



ABADIÑO

1000
m²

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila eraikitze aukeragaz.

250.000€



DURANGO

3
logela

2
komun

ERMODO: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. 21m²-ko ganbara. Garaje itxia. C.E.E= E

290.000€



IURRETA

3
logela

2
komun

AMILBURU: 111 m². 3logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Terraza. Ganbara eta garajea. C.E.E= E

265.000€



ZALDIBAR

2
logela

2
komun

BERRIAK ESTREINATZEKO: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Trastelekua. Garajea aukeran C.E.E: "C"

115.000€-tik aurrera (Bez barne)



IURRETA

3
logela

IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. 1.go mailako materialekin berriztatua. C.E.E= E

97.500€

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO Murueta Torre. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrekin. 3 logela, (gela nagusia balkoiagaz) 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara.

DURANGO Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 135m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara. Argitsua.

DURANGO Askatasun Etorbidea. Berriztatua. 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Balkoia.

DURANGO eraiki berria, 3 logelako duplexa. Azken etxe bizitza salgai. 200.000 €.

DURANGO Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

DURANGO Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobe.

ELORRIO Otsa kalea: 4 logela, sukaldea balkoiagaz, 2 komun eta egongela. Ganbara. Igogailua. Gasa. Bizitzaren sartzeko moduan.

BERRIZ Elizondo etxetalea: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela. LURSAILAK SALGAI

DURANGO 2.360 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

ABADIÑO 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitze baimenagaz. Zonalde egokia.

IURRETA 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

ABADIÑO Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA Txalea bifamiliarra eraikitze lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MAÑARIA 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA Baserrira salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO Aldape auzoa. Baserrira berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000 €

ATXONDO Baserrir ikusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berriztuta. Zonalde egokia.

MENDATA Lamikiz auzunea. Baserrir bifamiliarra. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

BERRIZ Baserrir ederra, Murgoitio zonaldean. 3 hektareako lursaila.

BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO

3
logela

60
m²

Asteiza Torre. 60m². 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Argitsua. 2 m²-ko trastelekua. C.E.E:G

88.000€



DURANGO


3
logela

2
balkoi

80
m²

ASKATASUN ETORBIDEA 80 m². 3 logela, komuna, egongela eta sukalde jantzia. 2 balkoi. Argitsua. Ganbara. Leku onean. C.E.E:G

164.000€



DURANGO

2
logela

2
komun

ASKATASUN ETORBIDEA 71 m². 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde jantzia. Balkoia. Garajea eta 6 m²-ko ganbara. Igogailua C.E.E:E

228.000€



DURANGO

4
logela

95
m²

TRONPERRI 95m². 4 logela, 2 komun, egongela, sukalde jantzia eta despentsa. Garajea eta ganbara. Igogailua. Terraza handia eta txoko komunitarioa. C.E.E:E

258.000€



DURANGO

4
logela

133
m²

EZKURDI 133 m². Hall-a, 4 logela, egongela, sukalde eta 2 balkoi. Argitsua. Aukera askogaz. Igogailua. C.E.E:E. Garaje itxia +35.000 € eta/edo garaje lekua + 26.000€.

330.000€



DURANGO

2
logela

71
m²

San Frantzisko 71 m². 2 logela, egongela, sukalde jantzia, jantzigela eta komuna. 2 balkoi. Argitsua. Igogailua. C.E.E bidean. Garaje itxia aukeran + 22.000 €.

207.000€

//DURANGO

AMBROSIO MEABE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. **205.000€** / E.E.Z=E

ANTSO ESTEGIZ 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **160.000€** / E.E.Z=E

ASKATASUN ETORBIDEA 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Garajea. Igogailua. **237.500€** / E.E.Z=E

ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.

SANTIKURUTZ KALEA Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600m²-ko lurzorua. **640.000€**

SASIKOA 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Garajea eta ganbara. **270.000€** / E.E.Z= E

TXATXIEN: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **390.000€** / E.E.Z=E

//ABADIÑO

ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **278.000€** / E.E.Z=E

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000€** / E.E.Z=F

ERROTATXO KALEA 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000€ / **ORAIN 85.000€**

ERROTATXO KALEA 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000€** / E.E.Z=G

LEARRETA MARKINA 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000€** / E.E.Z=E

MURGOITIO KALEA Etxebizitza bitan banatutako baserrira lursailagaz. **290.000€.**

//IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 276.000 € / ORAIN **265.000€** E.E.Z=E

//MAÑARIA

ARRUETA AUZOA Berreraikitze baserrira lurzoruagaz. **220.000€.**

//MATIENA

TXINURRISOLO 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. LEHEN 200.000 € / ORAIN **168.000€** / E.E.Z=F

TRAÑABARREN 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. **220.000€** / E.E.Z =E

//OTXANDIO

ELIZABARRI 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€** / E.E.E=F

OLETA AUZOA banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000€** / E.E.Z=E

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. Garajea eta ganbara. LEHEN 170.000 € / **ORAIN 160.000€** E.E.Z=Bidean

//BERRIAK

DURANGO

Fray Juan de Zumarraga: 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Bulegoa. Igogailua. **220.000 €** / E.E.Z=E



Botikak	
BARIKUA, 3 - 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	ASTELEHENA, 6 - 09:00-09:00
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-22:00	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 4 - 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	MARTITZENA, 7 - 09:00-09:00
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	SARRIA Sasikoa 17, DURANGO
09:00-13:30	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	09:00-22:00
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	EGUAZTENA, 8 - 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-14:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	EGUENA, 9 - 09:00-09:00
09:00-22:00	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
DOMEKA, 5 - 09:00-09:00	09:00-22:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Peio**, mutil handi!
Uztailaren 4an 7 urte egingo dituzu.
Ondo ospatu urteguna eta jarraitu
zaren moduko jatorra izaten! Mosu
handi bat etxeko guztion partez!



Zorionak, **Kattalin!** Etxekuen
partez! Musu handi bat!



Zorionak, **Manex!** Zein ondo
ospatu genituen zure 12 urteak.
Maite zaitu Abadiñoako familiak



Zorionak, maitia! **Inhar**, 6 urte
egin dozuzela, mutil handi! Etxeko
danen partez musu potolo-potolo
bat.



Nahiz eta etxetik urrin egon, egun
on-ona pasau! 27 mosu erraldoi
Euskal Herritik!



Zorionak, lazтана! 4 urte handi!
Egun polit-politte pasau zure
familia eta lagun artien! Askok
maite zaittugu!

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturritza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO
ASEGURUAK
Jabier Rueda
Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era
Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37
Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com



Lorena Meis Naveiro
DonSigno markaren
sortzailea
O'Grove (Galizia) |
1978

Lau hortza

Alina
Ahtamon
Medikua



Erleak

Gaur egun, medikua naizen aldetik koronabirusari buruz hitz egingo dudala pentsatuko duzue, baina ez dut horretaz hitz egingo. Jada jende askok hitz egin du koronabirusak mundu osoan izan dituen ondorioez, bai Euskal Herrian bai mundu osoan zehar. Egunero ikusi behar dut COVID-19ak eragiten duena, eta, hortaz, gaur beste gai bati buruz hausnartu nahiko nuke: erleen munduari buruz. Erleen antolamendua, euren izaera langilea eta euren produktuak mirestekoak dira. Erleak historian zehar eta antzinatek balio handikoak izan dira. Ezta garrantzi handikoa izan da elikagai eta gozagarri

Erleen antolamendua, euren izaera langilea eta euren produktuak mirestekoak dira

gisa, baina baita medikuntza tratamenduetarako ere. Orain dela gutxi, bi asteko txakur txikitxoak (nire txakurraren txakurkumeetarikoa bat) lepoan abesua izan du eta ezta baino ezin izan dugu erabili eguneroko sendaketetarako, antibiotikoa ezin izan dugu erabili bere gibela eta giltzurrunak oso heldugabeak baitira. Erleen gizarite antolaketa ere harrigarria da. Erregina erle guztien artean aukeratzeko dute, eta taldea behar baino handiagoa denean erregina gehiago jaiotzen da eta lehenengo jaiotzean taldea bitan banatzen da. Beti taldean lan egiten dute, beti errespetuarekin eta beti esfortzu handia eginda. Erleak ezinbestekoak dira gure munduan, gure elikadura-kateko jaki asko ekoizteko ezinbestekoak. Nire ustez, erleengandik asko dugu ikasteko.

“Jendeak keinu hizkuntza hurbil sentitzea gura nuke, naturalago bizitzea”

Kamisetak, poltsak, katiluak, txapak edota kuxinak pertsonalizatzen ditu zeinu hizkuntza erabilia landutako diseinuekin, gero online salduz

BERRIZ • AITZIBER BASAURI

Lorena Meisek DonSigno marka sortu zuen, keinu hizkuntza sustatzeko eta agerian ipintzeko. Urrian urte bi beteko dira enkarguak egiten dituela, zuzeneko inprimatzea erabilia. Keinu hizkuntzako interprete ikasketak egin ditu eta gor eta itsuen gidari-interprete lez lan egin du Galizian. Pedagogia Terapeutikoko irakaslea ere izan da. Hiru urte dira maitasunak Berrizera ekarri zuela.

Zerk eraginda jaio zen DonSigno?

Kasualitateak. Berrizera etorrira konturatu nintzen uste baino zailagoa nuela lana aurkitzea, eta bikotekideak marka bat sortzera animatu ninduen. Berak serigrafiagaz lan egiten du. Gaiari hainbat buelta eman ondoren eta keinuak marraztu egin daitez-

keela ikusita, ideia horri heltzea erabaki nuen.

Diseinu markatik harago, gorren kolektiboagaz eta hauen gizarteratzeagaz konprometitu dago DonSigno. Apurtu beharreko hesi asko daude?

Komunikazio traba asko daude. 2007tik hizkuntza ofiziala da. Hala ere, esparru publiko askotan ez dago interpreterik, eta hezkuntzan apenas lantzen da. Beharrezkoa da keinu hizkuntza hezkuntzan barneratzea, gehiago baloratzeko, ebo-luzionatzeko, agerian ipintzeko. Hizkuntza gutxitua den aldetik, neurriak hartu behar dira desagertu ez dadin.

Mito asko dago keinu hizkuntzari buruz

Nagusiena, nazioarteko hizkuntza dela. Herrialde bakoitzak berea du, batzuetan bat baino gehiago. Espai-

nian bi dira ofizialak: gaztelania eta katalana. Eta ez dute zerikusirik, adibidez, frantsesagaz. Euskararen edo galegoaren kasuan, keinu asko desagertuta daude, hainbat berreskuratu guran dabilzan arren. Gormutua berba ere oso zaharkituta dago; gorrik gehienek berba egiten dute. Aniztasun funtzionala edo aniztasun sentsoriala lako kontzeptuak ere indartu behar genituzke.

“

Garagardo baterako etiketa sortzea izan da eskatu didaten enkargurik bitxiena”

”

Nondik datorkizu lotura keinu hizkuntzagaz?

Txikitatik erakarri nau keinuen bitartez komunikatzeko. Granadan unibertsitateko ikasketak egin nituenan izan nuen lehenengo hartu-emana gorrekin. Ikastaroa egin nuen gorren federazioan, eta lagunak egin nituen. Gero, keinu hizkuntzako interprete zikloa ere egin nuen. Ikasle pisu batean gor bi eta entzule bi ginen.

Enkargu pertsonalizatuak egiten dituzu. Zer eskatzen dizute gehien?

Izen propioak ipintzea. Garagardo baterako etiketa sortzea izan da eskatu didaten bitxiena. Keinu hizkuntza sustatu gura dut nire diseinuekin eta sare sozialetan zabaldutako argitalpenekin. Oso ezezaguna da oraindino, eta jendeak hurbil sentitzea gura nuke, naturalago bizitzea.

Enbaxadore ugari dituzu...

Zenbait *celebrity*-k jantzi dituzte nire diseinuak: Natalia Verbekek, Eva Gonzalezek, Monagillok, Rozalene eta Beatriz Romerok, Carlota Corredarak, Carlos Blancok... Askok poztzen nau.

